

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

291/2020 Foru Agindua, uztailaren 24koa. Praktiketako funtzionarioak izendatzea, Administrazio Orokorreko eskalako administrari azpieskalan karrerako funtzionario izateko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzari baitagokio

Otsailaren 15eko 82/2019 Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko 2017ko eta 2018ko lan eskaintza publikoaren oinarri arautzaile orokorrak onetsi ziren.

10.4 oinarri orokorrak aurreikusten du epaimahaiak praktiketako funtzionario izendapenen proposamen bat egingo duela, zeinetan izangai bakoitzari dagokion lanpostua jakinaraziko baita, bai eta zerrenda argitaratu egingo dela ere.

Deialdiko 14. oinarriak jasotzen duenez, ezarritako epean lanpostua jabetzan hartzen ez dutenek, eta salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionario izaera eskuratzeko eskubideak. Halako kasuetan, baita hautatutako pertsonak beren izendapena baino lehen edo lanpostuaz jabetu baino lehen uko egiten badiete lanpostuei, edo baldin eta lanpostuaz jabetzerakoan lanpostua gordetzen ez den eszedentzia eskatzen badute, kasuan kasuko epaimahaiak beste behin baino ez du egingo praktiketako izendapen proposamen osagarri bat dagokien izangaientzat, betiere hautaketa prozesuko azken kalifikazioaren puntuazio ordenaren arabera.

Deialdiko epaimahaiak eginiko proposamena ikusi da eta alegazioak aurkezteko epea bukatu da.

13. oinarri orokorrean zehazten da hala ezartzen duten deialdi espezifikoetan, praktika eta prestakuntza aldi bat egingo dela, gehienez ere 4 hilabetekoa.

Bidezkoa da hautatuko izangaiak praktiketako funtzionario izendatzea, behin gaitasunari, hautaprotetan onartuak izateari eta lanpostua betetzeari dagozkien betekizunen agiriak aurkeztuta.

Praktika aldirako lortutako destinoak behin-behinekoak izango dira. 13. oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, balioespen batzorde bat eratuko da, eta hark epaimahai kalifikatzaileentzat ezarritako dauden jarduteko arau berberak izango ditu, eta praktika aldia eta prestakuntza aldia "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioekin balioetsiko du.

Alde batetik, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren, eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hori. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hautatutako izangaiak praktiketako funtzionario izendatzea, 2020ko irailaren 1eko ondorioetarako datarekin, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzan karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: Administrazio Orokorreko eskalako administrari azpieskalan. Hautatutako izangaiak ondoren zehazten diren lanpostuetara atxikita daude:

IZEN-ABIZENAK	KODEA	LANPOSTUA
RUBIO MARTINEZ, SONIA	1318.001	ABELTZAINZAKO ADMINISTRARIA
CANO GIL, BEATRIZ	2018.001	IKUSKATZE ZERBITZUKO ADMINISTRARIA
ESPEJO RUIZ DE ANGULO, IÑIGO	2041.012	ZERGABILKETAKO ADMINISTRARIA
RODRIGUEZ VERGARA, AITOR	2031.001	TOKI ADMINISTRAZIOKO KONTABILITATE ETA AURREKONTU ADMINISTRARIA
MORAL GONZALEZ, DOMINGO	1319.008	GARRAIO ZERBITZUKO ADMINISTRARIA
RODRIGUEZ TRUJILLO, JESÚS	2010.003	TOKI ADMINISTRAZIOKO ADMINISTRARIA
RICO MENDIGUREN, MARTA	2017.004	FINANTZA ETA AURREKONTUETAKO ADMINISTRARIA
LANUZA CAÑAS, ELENA	2023.005	MENDI ZERBITZUKO ADMINISTRARIA
ALDAMA PÉREZ DEL PALOMAR, ESTIBALIZ	2024.001	NEKAZARITZAKO ADMINISTRARIA
MILLAN RUIZ DE LAZCANO, PALOMA	2012.007	ZEHARKAKO ZERGETAKO ADMINISTRARIA
CRESPO ANGULO, BORJA	2026.001	ERREPIDETAKO ADMINISTRARIA
ARRUGAETA SAN SALVADOR, BEATRIZ	2023.001	MENDI ZERBITZUKO ADMINISTRARIA
DIEZ MONTIEL, IÑIGO	1319.009	GARRAIO ZERBITZUKO ADMINISTRARIA

Bigarrena. Praktikaldia egiteko atxikipenak behin-behineko izaera du.

Hirugarrena. C1 taldeko oinarriko ordainsariak eta atxikitako lanpostuari dagozkion ordainsari osoak jasoko dituzte.

Laugarrena. Praktika eta prestakuntza aldia ebaluatzeko balioespen batzordeko kide izendatzea honako hauek:

Batzordeburua	Titularra	Lourdes Martínez de Lagos Manzana
	Ordezkoa	Carlos Auzmendi Irastorza
Batzordekideak	Titularra	Alexander Rodríguez López
	Ordezkoa	M ^o Carmen Errasti Murguiondo
	Titularra	Félix Diaz Amundarain
	Ordezkoa	Patricia Ruiz Cascajar

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtoa, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakundeari berari; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan -Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik- xedatutakoaren arabera..

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 24a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR